

Tocino bakarrik geratzen ari da Aholkularitza Batzordean

Ekologistek, sindikatuek eta nekazariak utzi egin dute taldea

Isabel Tocino Ingurugiro ministroaren politikak zeharo haserretuta ditu ekologistak, nekazari taldeak eta langile sindikatuek. Zazpi elkarte atzo iragarri zuten ministerioko aholkularitza batzordea (CAMA) utziko dutela, eta Tocinoren dimisioa eskatu zuten, «ez duelako elkarretarako asmorik». Beste talde ekologista batzuek aspaldi utzi zuten taldea, ministroa salatzeke.



Gizarte taldeetako ordezkariak, atzo, CAMA uzten dutela iragartzen.

J.M.PASTOR / EFE

Agentziak / Madril

CCOO eta UGT sindikatuek, Amigos de la Tierra talde ekologistak, COAG eta UPA nekazariaren elkarrekin, Espainiako Gazte-riaren Kontseiluak eta Auzolagunen Elkartearen Konfederazioak (CAVE) Aholkularitza Batzordea utziko dutela iragarri zuten atzo. Zazpi talde horiek azaldu zutenenez, ministroak bizkarra eman diela, eta dagoeneko urtebete da CAMAren bilerarik deitu ez duela.

Azken bilera 1997ko irailean izan zen, nahiz eta maiatzean Kongresuak eskatu zion ministroari bilerak erregulartuenez deituzala. Orduz gero egindako saiora ez zen Administrazioaren kiderik azaldu, eta quorum-ik ez zegoenez, bertan behera geratu zen.

Aurretik, 1997ko martxoan talde ekologista nagusiek —

CODA, Adena eta Greenpeace— utzi egin zuten batzordea, Tocinoren jarrera salatzeke. Ministroak agindu zien gizarte taldeei bilerak egingo zirela eta gai nagusietan beren iritzia bilduko zuela.

Urte eta erdi geroago egoera ez da aldatu. «Ez zaigu informaziorik ematen ezta entzuten ere», esan zuten atzo Joaquin Nieto CCOOko ordezkariak. Nietok ministroaren dimisioa eskatu zuten, «politika gizartearen bizkar» egiteagatik.

CCOO ordezkariaren arabera, «onartezina da Tocinok bilerarik ez deitzea Doñanako hondamendiaren ondoren». Halaber, kritikatu zuten Klimaren Kontseilu Nazionala gizarte talderik gabe eratzea, edo Lan Hidraulikoaren Plana «ia ezkutuan» onartu izana. Ontzietan eta hondakinekin buruzko gabe atera dituela aurrera gaitzetsi dute taldeek.

Batzorde paraleloa sortu nahi dute

• Nietok gaineratu zuenez, Tocino Ingurugiro ministro den bitartean ez dira Aholkularitza Batzordea itzuliko, baina han izango dira ministroa aldatzen dutenean. Izan ere, «gizartearen parte hartzeke organuak uko egin ezin daitezkeen erakundeak dira».

Bestetik, Juan Martin CAVEko ordezkariak iragarri zuten talde ekologistekin batera CAMAren moduko egitura paralelo bat eratuko dutela. Egitura berri horrek bere iritzia emango du ingurugiroarekin lotura duten gai guztiei buruz.

Ekologisten, sindikatuen, nekazariaren eta auzolagunen elkarrekin alde egitearen ondoren, CAMAren soilik Administrazioaren ordezkariak, enpresariak, kontsumitzaile elkarrekin eta zenbait aditu independente geratzen dira. X

PSOEko Francisco Vazquezek ez du abortoarekin aldeko botorik emango

■ Curtok (PP) gogor salatu du CiUko boto askatasuna ematea bere diputatuei

Erredakzioa / Donostia

FRANCISCO VAZQUEZEK, Coruñako alkate (Galizia) eta PSOEko diputatuak, atzo iragarri zuten ez dela asteartean Kongresura joango, abortatzeko aukerak zabaltzen dituzten lege-gaiak eztabaidatzen direnean. Vazquezek onartu zuenez, 1983an ez zuten botorik eman

gaur egun indarrean dauden hiru aukerak onartu zirenean, eta berdin egingo du orain, laugarrena eztabaidatzen denean. Vazquez ez zen agertu otsailen gai hau eztabaidatu zutenean.

Vazquezek ziurtatu zuen PSOE-ek badakiela bere erabakiaren berri, baina «kontzientzia arazak» argudiatu zituen abortoa legeztatzearen alde ez egiteko.

PSOEren legegaiak aurrera egitea EAJ eta CiUko diputatuen esku dago. Diputatu horiek boto askatasuna dute bozketa horretarako, eta horrek haserretu egin du PPko Josep Curto. Bere iritziz, «boto askatasunarena ez da inon ikusi, ez da baliozkoa; gainera, ez da komenigarria bakoitzak bere iritzia pertsonalen arabera jotzea». X

laburrean

■ Bayrouk krisian hartuko du UDFko buruzagitza

UDF batasuneko militanteek botoa eman zuten atzo talde politikoko lehendakari berria izendatzeko. Berri hau idaztean, artean ez zegoen emaitzarik, baina oso argi zegoen François Bayrou biarnesa hautatuko zutela. Izan ere, Bayrou FD Indar Demokratiko presidentea da, eta alderdi horretakoak dira UDFko kideen bi heren. Gainera, Bayrouk PPDF eta PRIL alderdi txikiak sustengua zuen. Bayrouk hankaz gora geratu den UDF salbatzeari ekin beharko dio, eta horretarako, batasunaren egitura aldatu beharko du. «Atzoko UDF zen %90eko banaketa eta %10eko batasuna. UDF berria izango da %90eko integrazioa eta %10eko autonomia», iragarri du. Bayrouk leku politikoa aurkitu beharko dio UDFri, eskuinaren krisiari hobe- to erantzun dion RPRren eta sozialisten artean. X

■ Belloch «beste zeregin batzuk» zituelako ez zen joan urte judizialaren hasierako ekitaldira

JUAN ALBERTO BELLOCH Justizia gaietarako PSOEko arduradunak justifikatu egin zuen bezperan urte judizialaren hasierako ekitaldira agertu ez izana. Bellochen arabera, berak eta Maria Teresa Fernandez de la Vegak nahiago izan zuten ordu berdinean zegoen talde parlamentario sozialistaren bilerara joan Josep Borrell entzuztera. Bellochek azaldu zuenez, IUKo Rosa Aguilar ere ez zen agertu, baina inork ez dio horri garrantzirik eman. Alfredo Perez Rubalcaba ere azpimarratu zuen PSOEek ez zuela ekitaldia boikoteatu nahi, eta arrazoi politikorik ez zela izan Bellochen erabakiaren atzean. PPko Ignacio Gil diputatuak, ordea, «akats izugarritzat» jo zuen Bellochen hutsunea, bere iritziz, erakusten baitu PSOE «noraez» dagoela eta ez duela «Estatuko zentzurik». X

■ Austriak eta Alemaniak Hans Joachim Kleinen estradizioa eskatu dute

AUSTRIAKO Gobernuak eta Alemaniako Hess *lander*-ko Justizia Ministerioak eskatu dute jada Hans Joachim Klein RAF talde armatuko kide ohia beren herrialdeetara estraditatzeko. Klein joan den astean atxilotu zuten Normandiako herriska batean, 20 urtez bere bila aritu ondoren. Besteak beste, Kleini leporatzen diote Ilich Ramirez Carlos-en taldeko kide izatea, hark Vienan OPEPEko petrolio ministroak bahitu zituen. Daniel Cohn-Bendit eurodiputatu ekologistak eta beste batzuk kanpaina hasi dute Kleinen alde, borroka armatua duela 20 urte arbuatu zuela argudiatuta. X

■ Hondoratutako arrantzontzi bateko beste bi gorpu aurkitu dituzte Melilla inguruan

MAROKOKO segurtasun indarrek beste bi gorpu aurkitu dituzte Beni-Enzarko portutik gertuko uretan. Poliziak uste duenez, bi lagun horiek joan den astean Melillako kostaldetik bost miliatara hondoratu zen arrantzontzian zihoazen, etorkin irregular gisa. Aurreko egunotan beste bi hilotz azaldu dira, eta Marokoko agintariek uste dute beste zortzi etorkin ere hil zirela. Litekeena da bost lagunek beren bizia salbatzea. X

■ Bereizkuntzaz jokatzegatik auzipetu dute Natali

ASTEARTE goizetik Polizia judizialak galdezketatzen zuen Paul Natali aske atera zen atzo arratsaldean Bastiako auzitegitik. Haatik, Korsika Garaiaiko Kontseilu Nagusiak lehian jarritako bi herrilan merkaturatzen «bereizkuntzaz jokatzegatik» auzipetu zuen instrukzio-epaileak. Izan ere, Paul Natali Kontseilu Nagusi honen presidentea zen garaian, bi merkatu publiko horiek jaso zituen enpresa bere seme baten emaztearen izenean erregistratutakoa zegoen. X

■ Conde bihar aterako da Alcala-Mecotik, astebururako baimenarekin

MARIO CONDE Banestoko presidentea ohiak bihurtu astelehenera bitartean Alcala-Mecotik ateratzeko baimena izango du. Espetxeko tratamendu batzordeak onartu hartu zuten atzo Conderen eskaera. Bankaria lau urte eta bi hilabeteko espetxe zigorra betetzen ari da, *Argentia Trust* auzian frogatu zelako Banestoren 600 milioi pezeta beretzat gorde zituela. Zazpi hilabete egin ditu preso, baina Espetxe Erakundearen Zuzendaritzak hirugarren gradu mugatua eman zion. Horri esker, libre egon zen abuztuaren 7tik 10era, baina epaile batek bertan behera utzi zuen erabakia. Condek erre-kurtsoa jarri zuen, eta epailearen ordezkoiak onartu egin zuten. X

■ PSOE eta Nueva Izquierda udal eta autonomi hauteskundeetan bat eginik joateko bidean

PSOEko eta NI Nueva Izquierdako buruzagiak bilduta izan ziren atzo, hurrengo urteko udal eta autonomi hauteskundeetarako itun bat negoziatzeko asmoz. Bi talde horiek elkarrekin joango dira Eusko Legebiltzarrerako urriko hauteskundeetara eta Madrilgoetara, baina beste lurraldeetara ere hedatu nahi dute paktua. Bi lan talde sortu dituzte, bata programari eta ildo politikorik buruz eztabaidatzeko, eta bestea batasunaren itxuraz hitz egiteko. Negoziazioak beranduenera azaroan bukatuko direla erabaki dute. NI iazko irailean botoa zuten IUtik. X